



## BALIO PROPOSAMENA

---

Gaur egun dagoen birziklatze sistema eta motibazioa ez da behar den handia izaten, horregatik, gure helburua plastikoaren birziklapena areagotzea da, eta horrela plastikoaren kontsumo arazoa gelditzea; plastikoaren produkzio amaigabea gutxitzea, eta birziklatutako materialarekin produktu berriak sortzea, produktu birziklatuen salerosketa handitzeko helburuarekin.

Gure makina vending makinaren antzeko tamaina du, baina, funtzionamendua ezberdina da, hau da, plastikozko botilak/ edalontziak sartzeagatik diru kopuru jakin bat ematen dizu, gainera, beste zerbitzu mota bat ere ematen du, dirua eskuz eman beharrean, Barik (metro edo autobus txartela) txartelean dirua sartzeko aukera emango du.

Baina alderantziz ere funtzionatzen du; hau da, dirua sartzean, plastikozko edalontzi bat ematen dizu. Bezeroak mantentzeko, bezero bakoitzak aldi batean makinan zehaztutako botila kopuru jakin bat birziklatuz, dirua jasoko du eta dirua dohaintzan emateko aukera izango du, makinan zehaztutako gobernuz kanpoko erakunde batera. Makinak, sartutako plastikoa multzotan banatzen du, eta guk plastiko birziklatua erosten duten enpresei modu merkeagoan saltzen diogu. Barik txartelaren kasuan, errekaratzeko aukera emango du, lehen aipatutako aukeretatik aparte.


Plastikozko ontziak biltzen dituen edukiontzia da gure produktua. Horrez gain, jasotako plastikoaren kudeaketaz arduratzen da hauen birziklatze prozesua zihurtaraziz.

Egoera desberdinetan ematen den plastikoa eta zaborraren erabilera masiboaren arazoari konponbidea ematen dio. Egoera hauek ematen diren leku estrategikoetan kokatzea dugu helburu, modu honetan, plastikoaren bilketa eskuragarri uzten dugu edozein pertsonarentzako. Izan ere, makina hauen erabilera sustatzeko nahian, zenbait balio gehigarri eskainiko ditugu.

Aurretik aipatutako aukerekin batera, enpresa zehatz batzuekin adostutako hitzarmenen bitartez plastikoa kudeatuko dugu gure enpresaren ekimen eta ekintzak zuzenean baldintzatuz eta gure enpresaren egitura zehaztuz.

Horrela, gure eskaintzak birziklatzeko zailtasunari konponbide erraza ematen dio, ohiko edukiontziak erabili ordez hauek erabiltzean kontsumitzaileek irabazi bat jasotzea hain zuzen. Kontuan izan behar dugu, guk makinak habilitatuko ditugula, ez ekoiztu; hau da, kontratatutako leasing enpresa arduratuko da makinaren ekoizpenaz, eta guk makinak martxan jarriko ditugu entitate batzuekin lanean arituz .

---



KUDEAKETA TXARRA



LEASING



Gure plastikoa erosiko du.

**Reactivate**

Gure egitura guztiz baldintzatuko du, programa honetan sartzea dugu helburu.